

## GRADU AMAIERAKO LANA

# Bigarren Hezkuntzako ikasleek Gorputz Hezkuntzari ematen dioten garrantzia

EGILEA: Rodriguez Galparsoro, Unai  
ZUZENDARIA: Ereño Alvarez, Maria Carmen

JARDUERA FISIKO ETA KIROLAREN ZIENTZIEN GRADUA

**2017/2018**

## **LABURPENA:**

Hurrengo lanean Irakasle eskolan Lehen hezkuntzako ikasketak egin nuen Gradu amaierako Lanaren jarraipena egitea erabaki dut. Kasu honetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak erabiliko ditut gorputz adierazpenari (motrizitatea) buruzko duten pertzepzioa ikertzeko eta Magisteritzan egindako GRAL-arekin ateratako ondorioak aldatu diren ikusteko

Izan ere, Lehen hezkuntzako GRAL-ean ateratako emaitzak eta ondorioak oso adierazgarriak izan ziren, zehazki, motrizitatearekin erlazionatutako egoerak gustagarrienak zirelako.

Beraz, esandakoa kontuan hartuz, Gradu Amaierako Lanaren oinarria eta helburua izango da, motrizitatea ikertzea umeek egindako testuinguratutako idazlan batzuen bitartez. Ikerketa, Errenteriako Orereta ikastolako ikasleek parte hartu dute, zehazki, 60 ikaslek. Maila bakoitzetik gela bakar bat. Hau aurrera eraman ahal izateko, Pierre Parlebasen barne eta kanpo logika teoria erabili dut. Bertan, motrizitatea ulertzeko atalak agertzen dira (materiala, sentimenduak, lekua...). Jarraian, ondorio sendo batzuk ateratzeko.

Bukatzeko, motrizitateak dituen ezaugarri bereziak eta umeenganako erakarpen indar hori jakitean, ondorio sendo batzuk aterako ditut, zer esan handia edukiko duena gaur egungo ikasleak gorputz hezkuntzari eta motrizitateari duten ikuspegiaren inguruan.

**Hitz gakoak:** motrizitatea, praxiologia, barne logika, kanpo logika.

# 1. AURKIBIDEA

1. AURKIBIDEA.....	2
2. SARRERA.....	4
3. HELBURUAK.....	6
3.1. Helburu orokorra.....	6
3.2. Helburu espezifikoak.....	6
4. MARKO TEORIKOA.....	7
Egoera Motorea.....	7
Barne logika.....	7
1. Espazioa.....	9
2. Harremanak.....	10
3. Denbora.....	12
4. Materiala.....	13
Kanpo logika.....	13
5. METODOLOGIA.....	15
5.1. Prozedura.....	16
5.2. Harramientak eta tresna metodologikoak.....	19
5.3. Gidatutako Idazlanaren edukiaren analisi prozedura.....	20
5.4. Prozeduran sortutako zailtasunak.....	21
5.5. Arlo Etikoa.....	22
6. DATUEN ANALISIA.....	24
6.1. Idazlanetan agertzen diren egoera motorren inguruko datuak eta analisia.....	24

6.2. Idazlanetako harremanen inguruko datuak eta analisia.....	28
6.3. Idazlanetako espazio moten datuak eta analisia.....	29
6.4. Idazlanetako jarduera moten datuak eta analisia.....	31
6.5. Idazlanetako sentimenduei buruzko aipamena.....	32
6.6. Idazlanetako materialei buruzko aipamenak.....	33
6.7. Idazlanetako denbora moten datuak eta analisia.....	35
7. ONDORIOAK .....	37
8. GERORA BEGIRA BESTE LAN PROPOSAMENAK .....	39
9. BIBLIOGRAFIA.....	41
10. ERANSKINAK .....	42
1. Planilla ereduak.....	42
2. Ikasle bakoitzak identifikatutako jarduerak.....	43
3. Ikasleen idazlanen adibideak.....	45

## 2. SARRERA

Hauek dira zehazki C. Reyes Ruiz eta beste batzuen (1981) hitzak gorputz hezkuntzaren eta motrizitatearen garrantziaren inguruan:

*Las primeras manifestaciones del niño, son: Gritar, correr, cantar y sobre todo jugar. La necesidad biológica para el niño es el movimiento.*

Aurrean adierazten denarekiko, nire txikitako motibazioa azaleratu nahi nuen, izan ere, gorputz hezkuntza eta motrizitatearekin nuen erlazioa oso estua zen. Are gehiago, horren inguruan noizbait ikertzeko momentua edukiko nuela banekien. Horregatik, sartu nintzen Irakasle Eskola batean Lehen hezkuntza ikasketak egiteko, zehazki Gorputz hezkuntza minorra. 2016n Gradu amaierako lana (GRAL) egin behar nuenean zuzenean arlo honetara bideratu nuen: “Umeen gustuak azaleratzen” izenburua izan zuen GRL-a aurkezten. Nire helburua lehen hezkuntzako ikasleek motrizitatearekiko (gorputz adierazpenarekiko) duten gustua ikertzea zen. Oso tresna baliagarria eta interesgarria iruditzen zitzaidalako, nire interesak azaleratzeko.

Gradu Amaierako Lan honetan Irakasle Eskolan aipatutako lanaren helburu eta hipotesi berdinekin lan egitea erabaki dut, alde batetik ateratako emaitzak oso esanguratsuak izan zirelako momentu hartan, eta bestetik, dudarik gabe, asko disfrutatu nuelako lana egin nuen bitartean. Laburbilduz, esango nuke lan hau aurretik egindakoaren jarraipen bat izateko pentsatuta dago. Kontuan hartzen DBH-ko ikasleak ez dira lehen hezkuntzakoak eta horregatik tresna metodologikoak, eta baliabideak desberdinak izan beharko liratekeela. Lehen hezkuntzan, adierazpen plastiko alorreko lagin bat erabili nuen, 100 inguru ikasleek egindako marrazki libreak, hain zuen. Berriz, DBH ni neuk zehaztutako testuinguru bati erantzunez, 60 ikasleek egindako “gidatutako idazlanak” izango dira gure lagina.

Lan honetan aurreko lanean ateratako ondorioak indartu eta sendotzeko aukera bikaina izan zitekeela uste nuen, esandako hipotesia berriro betetzen baldin bada. Eta, interesgarria izango zela ere aztertzea ea aldaketarik dagoen motrizitate arloan Lehen hezkuntzatik Bigarren hezkuntzara igarotzen direnean.

### 3. HELBURUAK

#### 3.1. HELBURU OROKORRA:

Nire helburua garrantzitsuena lan honetan, motrizitateak Lehen hezkuntzan ikasleengan zuen garrantzia ea mantentzen den edo ez ikertzea da. Irakasle Eskolan egindako lanean ateratako ondorioak oinarritzat hartuz, ikasleei motrizitatearekin erlazionatutako egoerak (Gorputz Hezkuntza, eskola, curriculum, mugimenduarekin erlazionatutako momentuak, jolas garaia...) oraindik ere bigarren hezkuntzan garrantzia duen ikertzean datza.

#### 3.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- “Gidatutako idazlanetan” egoera motorrak identifikatzea.
- Egoera motor bakoitzean pertsonaien arteko harreman motak aztertzea eta identifikatzea.
- Egoera motor bakoitzean zein motatako material erabiltzen den identifikatzea.
- Egoera motorrean dauden bitartean sorrarazten zaien sentimenduak identifikatzea.
- Idazlanen bitartez egoera motorretan denbora-nozioak ikertzea.
- Idazlanen bitartez zehazten duten espazioa motak identifikatzea.

#### **4. MARKO TEORIKOA:**

Ikerketa honetan, Pierre Parlebasen teorian oinarrituta dago, Praxiologiak barne logika eta kanpo logika kontzeptuaren bidez, egoera motorraren azterketan hain zuzen. Nire lanaren marko teorikoa izanda, bertan agertzen diren hainbat kontzeptu erabiliko ditut: egoera motorra, barne logika eta kanpo logika.

##### **EGOERA MOTORRA:**

Praxiologiaren definizioa, P. Parlebas-ek (2001) honela definitzen du jarduera eragilea:

*Conjunto de elementos objetivos y subjetivos que caracterizan la acción motriz de una o más personas, que caracterizan, en un medio físico determinado, realiza una tarea motriz”*

Ikusten denez, jokaera motorra da terminorik garrantzitsuena eta modu honetan portaera motorraren antolakuntza ere esanguratsua da, nortasun baten bitartez adierazten delako. Eta horrela izanda, pertsona baten ekintzak erreakzio antolatuak edo antolatu gabeak izan daitezke ekintzan zehar:

*Una conducta motriz sólo puede ser observada indirectamente; si se manifiesta mediante un comportamiento motor cuyos datos observables están dotados de sentido, y que es vivido de forma consciente o inconsciente por la persona que actúa.*

##### **BARNE LOGIKA:**

Barne logika egoera motorraren berezko ezaugarrien multzoa da eta ezaugarri hauek, egoera motorraren praktikaldian zehar ikus daitezke. Esan bezala, ezaugarri hauek desberdinak dira jolas batetik bestera, hauek aldatu ezker, beste jolas batean bilakatuko lirateke, beste ezaugarri eta arau batzuekin.



Barne logikaren barruan ere, lau atal desberdin zehazten ditu:

1) Espazioa: “espazio” izendatu duen atala azaltzen du. Bertan honakoa esaten du: joko batean jolasteko garaian, espazioa zalantzazkoa edo zalantza gabekoa izan daiteke. Hau da, jokoa aurrera eramango den eremua aurretik finkatua eta oztopo gabea denean, zalantzazko eremua izango da eta eremuak dituen oztopoak jokoan nola eragin dezaketen ez dakigunean, berriz, zalantzazkoa.

2) Harremanak: Jokoa parte hartzen duten parte hartzaileen artean sor daitezkeen harreman motak zehazten ditu. Hauek, lankidetzakoak, aurkaritzakoak edo lankidetzazkoak/ aurkaritzakoak izan daitezkeelarik.

3) “Denbora” deituriko atalean, jolasaren denboraz hitz egiten du eta bi bereizketa egiten ditu: alde batetik, denbora lineala, non jokoak hasiera bat eta bukaera bat duen. Bestetik, denbora ziklikoa, hauetan jolasak ez du amaierarik.

4) Materiala, egoera motorretan materiala beharrezkoa den edo ez zehazten du.

Atal hauez gain, Parlebasek, beste bi aspektu azaltzen ditu barne logikaren barruan. Batetik, edozein jokotan helburu motor ezberdinak egon daitezkeela eta hauek jokoaren nondik norakoa baldintzatzen dutela. Parlebasen ustez hauek izan daitezke helburuak: gizakia, materiala, erritmoa edo espazioa. Bestetik, jokoetan dauden puntuazio sistema desberdinak azaltzen ditu: “puntu”, “denbora”, “puntuazioa” eta “denbora” (bietara) zehatz batzuk. Hauez gaiz, badira puntuazio gabekoak diren jolasak ere.

Ondorengo atalean, barne logikaren barruan aspektuak azalduko ditut, izan ere, gidatutako idazlanetan ikertutako atalak izango baitira.

## 1. ESPAZIOA:

Parte hartzaileak egoera motorra aurrera eramaten duten zonaldea, bi multzo desberdinetan banatzen da. Alde batetik, zalantza gabeko espazioa. Eta bestetik, zalantzazko espazioa. Bi termino hauek oso ondo definitzen ditu Etxebeste (2005) autoreak bere lanean:

**Zalantza gabeko espazioa:** zalantza gabeko espazioetan jolasten den egoeretan, parte hartzaileak ez dute espazioa momenturo irakurri beharrik, beti emaitza berdina emango duelako. Adibidez, futbol partidu bat jolasten ari diren parte hartzaileak, ez dute momenturo lurrera begiratu behar ea zuloen bat dagoen.

*El jugador no necesita de esa lectura del espacio de juego que la información siempre va a ser la misma; el jugador una vez adaptado a ella tenderá a obviarla.*

**Zalantzazko espazioa:** Espazio mota honetan, ikaslea etengabe begiratu eta non dagoen ulertu beharko du, egoera motorra modu egoki batean egiteko. Hau da, ikasle batek zalantza gabeko zonalde batean dagoenean, mugimendu desberdinak egingo ditu, lurra alde batetik bestera aldatu egiten delako. Berdina gertatzen da zonalde hauetan, objektu bat sartzen denean. Adibidez, pertsona batek mendi lasterketa bat egiten baldin badu, lurrera begira egon behar du, non zapaltzen duen ikusteko.

*El jugador ha de leer el entorno en el que se encuentra, que es, sin duda, una fuente generadora de información.*

## 2. HARREMANAK:

- Egoera psikomotorea:

Pierre Parlebas (2001) autorea bere lanean jolas psikomotoreak, bakarka jolasteari deitzen dio eta kanpoko eragilerik gabe gertatzen denean. Beste hitz batzuetan esanda, ekintza egiten ari den pertsonari ezin zaionean mesederik edo kalterik egin.

*Estas situaciones carecen completamente de comunicación praxica. El individuo actua en ellas en solitario, sin trabar interacciones operatorias con ningun otro participante.*

- Sailkapena:

Parlebas-ek egoera motorrak sailkatzerako garaian, metodo propio bat sortu zuen. Sailkapen berri honek hiru elementuen arteko konbinaketa binarioan datza. Elementuak hauek dira: Jolasean parte hartzen duten pertsonen arteko rola lankidetzakoak (L) edo aurkaritzakoak (A) izan daitezke eta hirugarren elementua espazioa antolakuntza da, izan daiteke, zalantzazkoa (Z) edo zalantza gabekoa. Elementu hauek elkarren artean konbinatzen dira jolas motor guztiak sailkatu ahal izateko: (LAZ, LAZ, LAZ, LAZ, LAZ, LAZ, LAZ, LAZ). Munduko jolas guztiak sailkapen binario honetan sartzeko aukera dago, beti ere, jolasaren ezaugarriak ondo definitu eta zehazten badira.

Aurreko definizioak eta sailkapenak zehaztea beharrezkoa izan dira lana aurrera eraman ahal izateko. Aurreko atal batzuetan azaldu dudan moduan, haurren idazlanetan agertzen diren egoera motorra ikertzean, Pierre Parlebasek egindako sailkapenarekin idazlanak ikertuko ditut, egoera motor gogotsuenak zehazteko. Baita ere, baliagarria izango zait testuinguratutako idazlana zortzi multzo hauetan sailkatzea, umeen interesak gertutik ezagutzeko eta motrizitatea duen arrakastaren inguruko pistak bereganatzeko. Idatzizko azalpenak egiteko garaian askatasuna

zutenez, egoera batzuk kiroldegi barruan edo gimnasioa azaldu dute eta beharrezkoa ikusi dut, jolas psikomotorea eta jolas soziomotorea zehaztea. Jakinda, soziomotorearen barnean lankidetzak jolasa, aurkaritzak jolasa eta lankidetzak aurkaritzak jolasak dauden.

- Soziomotorea:

Partaideen interakzioan ematen den egoera motorrari deitzen zaio. Interakzio hau hiru mota desberdinetan banatzen da: lankidetzakoa, aurkaritzakoa eta lankidetzak/aurkaritzakoa. Parlebasen (2001) hitzetan oinarrituta, egoera horietan zeregin eragileak edo helburu motorrak parte-hartzaile baten elkarrekintza eskatzen du.

*El rasgo fundamental de estas situaciones es la presencia de una interacción motriz, implicada necesariamente en la realización de la tarea proyectada.*

**Lankidetzak:** ekintza egiten ari diren pertsonen artean, gutxienez kide batekin kontaktuan jarri behar da, helburu komun bat lortu ahal izateko. Helburua lortzeko komunikazio horitan, bidea desberdinak izan daitezke: Pertsonen arteko kontaktua, rol aldaketa edo objektu bat pasatzea.

Hau da, jolas soziomotore hauetan, ekintzan parte hartzen ari diren pertsonak helburu berdin bat dute eta zeregin batzuk egin beharko dituzte zehaztutako helmugara iristeko.

*En un medio imprevisto o previsto es afrontado en situación de cooperación motriz(...). cada participante intenta ser transparente para sus compañeros y favorecer sus anticipaciones; ya que a menudo se precisa realizar la práctica en común.*

**Aurkaritza:** Jolasaren edo ekintzaren helburua lortzeko, gutxienez beste pertsona baten oztopoak gertatzen direnean. Aurkako jarduera bi motakoa izan daitezke: Alde batetik, pertsonen arteko kontaktua dagoenean (boxeo, judo, karate...) eta bestetik, instrumentala. Hau da, pertsonen arteko kontrako jarduera objektu baten bitartez egiten denean (baloia, ezpata, egurrezko pala...)

*Es el enfrentamiento de adversarios en un mundo estable o inestable.(...).*  
*La interacción está dominada por el antagonismo, la estratagema y la finta. Para coger al adversario en un error.*

**Lankidetzeta-aurkaritza:** Ekintzan parte hartzen duten denboran zehar, jolaseko kideen laguntzarekin eta aurkarien eragozpenarekin jarduten dute beraien helburua lortu ahal izateko. Normalean taldeko jolasak edo jolas tradizionalak sartzen dira multzo honetan (futbola, saskibaloia, eskubaloia...), baina badaude multzo honetan jolas berezi batzuk, Jolas anbibalenteak. Partaideak bere interesen arabera rol aldaketa desberdinak egin ditzake, zehaztutako helburuetara iritsi ahal izateko.

*Propone situaciones donde la comunicación y contracomunicación motriz se entrecruzan en un entorno.*

### **3. DENBORA:**

Denbora bi multzo desberdinetan banatzen da: denbora ziklikoa (ez dago irabazlerik) eta denbora lineala (irabazleak eta galtzaileak daude) eta bi termino hauek Etxebestek (2005) bere lanean definitzen ditu.

**Ziklikoa:** Egoera motor hauetan, jolasak ez du amaierarik. Ikasleak etengabe jolasten egon daitezke, ezinezkoa delako talde edo pertsona batek irabaztea. Horregatik deitzen zaio jolas ziklikoak, amaiera gabekoak direlako.

*Existen juegos en los que el final no está determinado por las reglas (...) este juego se reinicia y se relanza una y otra vez hasta que algo exterior algo exterior a las normas (...) haga desaparecer el contrato lúdico.*

**Linealak:** Egoera motor hauetan, hasiera bat eta amaiera bat zehazten da. Hau da, jolas mota hauetan irabazle eta galtzaileak egongo dira. Arau hauek ezin dira aldatu, jokoaren izaeran parte direlako.

*Las reglas pueden determinar el final del juego y cuando esto ocurre, se determina el vencedor.*

#### **4. MATERIALA:**

Material atala definitzeko garaian, autoreak egoera motorrak praktikatzen ari diren bitartean erabiltzen dituzten materialei erreferentzia egiten die.

**Objektuekin:** Materialen inguruan hitz egiten dugunean, haurrak momentu horretan garrantzi edo arrakasta gehien edukiko duen materiala erabiliko dute. Adibidez, Erreterian oso famatuak egin dira orain sortu dituzten "txiba" berri batzuk. Baina Gasteizera joango bagina, beste objektu batek edukiko luke arrakasta. Hau da, materialen erabilpena gizartearen menpe dago eta hauek aldatzea oso zaila da.

#### **KANPO LOGIKA:**

Kanpo logika, zehaztutako egoera motorretik kanpo dauden ezaugarriak, egoera motorrean duten eragina ikustean datza. Hau da, lekua eta gizartearen arabera jokoa ikusteko moduak aldatu egiten dira. Eragile hauen artean, barneratutako baloreak, ikus puntuak edo gizarteak zehaztutako portaerak aurkitzen

dira. Horren inguruan, Pierre Parlebasek lau ataletan banatu zituen eragile hauek: espazioa, denbora, partaideak eta materiala.

1) **Espazio** atala ikertzeko garaian, garrantzitsua da, egoera motorra zein eremuetan jolastuko den jakitea (herria, hondartza, eskola, basoa...). Horren arabera, jokia ikusteko edo ulertzeko moduak baldintzatuko dira, zonalde bakoitzak bere ezaugarri bereziak dituelako. Esandako adibideen artean, lekua itxia, estalia, erdi-estalian... ere sailkatzen dira.

2) **Denbora** atalean, kontuan hartu behar dira, denborarekin erlazionatutako aspektu desberdinak (aroa, egutegia, ordutegia, urtaroak...). Jakin eta zein egoera motor praktikatu nahi den. hauen interpretazioak eta pentsamenduak desberdinak izango dira.

3) **Parte hartzaileen** inguruan, ezaugarri hauek (adina, generoa, kultura, ekonomia maila...) eragin handia izango dute, jokia interpretatzeko garian. Hau da, ume bakoitzaren ezaugarrien arabera, modu batean edo bestean ulertzeko gaitasuna edukiko du.

4) **Materiala**, egoera motorra aurrera eramateko erabiliko dituzten materialak informazio ugari emango dute, bizi diren egoera modu egoki batean ulertzeko: materialen egoera, zerez egina dagoen, funtzioa, balioa... eta datu guzti hauek jakin ondoren, egoera motorra non gertatzen ari den jakin dezakegu.

## 5. METODOLOGIA:

Tradizioan, ikerketa bat aurrera eramateko momentuan bi motatako metodologiekin lan egiten da: metodologia kualitatiboak eta metodologia kuantitatiboak, hain zuzen.

### Metodologia Kualitatiboak:

S. Esteban (2003) horrela definitzen du: *la investigación cualitativa es una actividad sistemática orientada a la comprensión en profundidad de fenómenos educativos y sociales, a la transformación de prácticas y escenarios socioeducativos, a la toma de decisiones y también hacia el descubrimiento y desarrollo de un cuerpo organizado de conocimientos.*

Bestetik, G. Pérez Serranok (1994), hurrengo dio: *la investigación cualitativa se considera como un proceso activo, sistemático y rigurosos de indagación dirigida en el cual se toman decisiones sobre lo investigable en tanto está en el campo de estudio.*

Bukatzeko, A. Strauss eta J. Corbinek (1990) esaten dutena nabarmendu nahi nuke: *cualquier tipo de investigación que produce resultados a los que nos ha llegado por procedimientos estadísticos u otro tipo de cuantificación.*

Laburbilduz, ikerketa kualitatiboa metodo aktibo eta sistematiko bat da, non, pertsona talde bateko fenomeno sozialak edo hezkuntza fenomenoak behatu eta analizatzen diren, ondorio estatistikoak ateratzeko.

Metodologia kualitatiboa etnografian oinarritzen da eta helburua aurkikuntza bat egitea da, hau da, egunerokotasunean gertatzen dena azaleratzen zentratzen da, ondoren interpretatu eta modu egokian ulertzeko (G. Rojas, 2002)



### Metodologia Kuantitatiboak:

Ikerketa kuantitatiboari dagokionez, P. Fernandez eta S. Pértegas Díaz (2002) autoreak esaten dute, ikerketa mota honetan datuak jaso eta analizatzen dena da, egoera aldakor baten barruan. Mota honek kuantifikazioa ekiditen du, analizatzen ari garen datuak modu argi eta koherente batean ikusi ahal izateko. Gainera, metodologia eskaintzen dituen baliabideekin, egoera aldakorren arteko erlazioa bilatzen, orokorra dena eta ateratzen diren emaitzak geroz eta objektiboagoak izaten lortzen da.

Era berean, G. Rodríguez, J. Gil Flores eta E. García Jiménez (1996) autoreek esaten duen bezala: *una categoría de diseños de investigación que extraen descripciones a partir de observaciones que adoptan la forma de entrevistas, narraciones, notas de campo, grabaciones, transcripciones de audio y vídeo cassettes, registros escritos de todo tipo, fotografías o películas y artefactos.*

Aurreko autoreak esan duten bezala, metodologia kuantitatiboaren funtsa, baliabide desberdinetatik datuak ateratzea eta beraien arteko erlazioa bilatzea da, modu koherente eta labur batean irakurtzeko. Prozedura guzti hau izan da nire ikerketan egingo dudan zati garrantzitsu bat.

Guzti hau ikusi ondoren, beharrezkoa ikusi dut azaltzea, lan honetan bi metodologiak erabili behar izan ditudala aurrera eramateko. Alderdi kualitatibotik (behaketa egiterakoan) zein kuantitatibotik (hartutako datuak ordenatzeko eta interpretatzeko), alegia.

#### 5.1. PROZEDURA:

Gradu amaierako lanaren nondik norako eta izenburua zehaztu ondoren, informazioa ateratzeko erreminta nolakoa izango zen pentsatu behar nuen. Irakasle eskolan marrazkiak erabili nituen lagin moduan, izan ere, lehen hezkuntzako ikasleekin lortuko nuen informazioa osoagoa izango zela pentsatu nuen. Kasu

honetan, nahiz eta oraindik ere oso interesgarria iruditzen zait adierazpen plastikoen bitartez aztertzea, ikasleak beste adin tarte batean daude eta ahalik eta informazio gehien lortzeko, sortutako testuinguru bati erantzunez, gidatutako idazlan bat egin beharko dute.

Lehen hezkuntzako ikasketetan egindako gradu amaierako lanean, azkeneko Praktikuma erabili nuen datuak ateratzeko eta lana aurrera eramateko. Zehazki Orereta ikastolako lehen hezkuntza erabili nuen lagin moduan eta ziklo bakoitzetik gela bat aukeratu nuen marrazkiak lortzeko. Horrela, lehen hezkuntzan ikasleen garapenaren inguruko informazioa lortuko nuela pentsatu nuelako.

Orereta ikastolaren inguruan, beharrezkoa da testuingurua modu labur batean azaltzea. Hau da, Orereta Ikastola, giza ekimeneko ikastola bat da 1963an sortua eta irabazi gabekoa da. Orereta ikastola Kooperatiba Elkartearen titularrak delarik, 18 urte arteko ikasleei hezkuntza osatua eskaintzen duena eta euskararen eta euskal kulturaren hedapenarekin konprometiturik dagoena. Ikastola bat denez, eskola kontzertatu bat da (maila guztietan D ereduarekin lantzen delarik) eta bertara joaten diren ikasleen familiak, erdi eta goi mailako familiak dira.

Lan honetan, bigarren hezkuntzan gertatu daitezkeen egoerei bideratuta dagoenez, garrantzitsua iruditu zitzaidan ikastolaren testuingurua ez aldatzea (aurreko GRAL-aren datuekin alderatzeko eta desberdintasunak ikusteko) eta ikerketa Orereta ikastolako bigarren hezkuntzan beteko da. Honen arrazoia ere bada ikastolarekin erlazio handia dudala eta erraztasun guztiak jarriko dizkidatela lana aurrera eramateko. Zehazki, lehenengo bi mailetatik gela bana hartzea erabaki dut gela bakoitzean 30 ikasle izanik, guztira 60 idazlan, lagin kopurua murriztu ahal izateko.

Datuak lortu ahal izateko eguna baino lehen, aurretik, bai zuzendaritza taldearekin eta bai ikastolako tutoreekin egun bat zehaztu genuen idazlanak burutzeko. Eguna iristerakoan, bi tutoreak eta ni bilera txiki bat egin genuen prozeduraren inguruan azaltzeko eta erabakitzeko zein gelatan sartuko nintzen



Idazlana eskatzeko garaian egoera ahalik eta ezaugarri gehien edukitzea, eskatu nien eta beste kontu berri bat sartu behar baldin bazuten lasai asko sartzeko, askatasun osoz.

Behin informazio guztia 60 idazlanetan bilduta edukitzean, hauetatik ateratako informazioa *Excel* programa informatiko baten bitartez datuak sailkatu eta grafikoetan errepresentatu ditut.

## 5.2. ERREMINTAK ETA TRESNA METODOLOGIKOAK:

Lan honetan azaldu dudan moduan, informazio lortzeko gidatutako idazlanak erabiltzea erabaki dut. Lagin moduan aukeratzearen arrazoiak dira, alde batetik, ikasleei eskatzen zaien informazioa ahalik eta osoena izatea zen. Izan ere, beste baliabide batzuekin, datuak bidean galduko zirela antzeman nuen. Besteak beste, idazlanak eskolako momentu lasai eta girotu batean egiteko aukera izan zuten, beraien nahi zuten guztia espresatzeko aukera izateko.

A. Colón: *“La redacción ayuda a desarrollar el pensamiento ya que ayuda, no sólo a desarrollar y organizar ideas sino, a compartir ideas con nuestros compañeros.”*

Ikasleak egin behar zuten idazlana aurrera eramateko, aurretik fikziozko testuinguru bat sortu egin dut, egin behar duten lana esanguratsuagoa izateko. Modu honetan, nire interesak idazlanetan azalertzeko probabilitatea handiagoak izateko. Sortutako testuingurua honakoa da:

*Ikasleak derrigorrezko hezkuntza bukatu dute eta eskolak eskatu die, ikasle bakoitzari idazlan txiki bat (orrialde batekoa) egitea beraien momenturik gustukoena eskolan zein zen azalduz. Azalpenak zehatzak eta sentimenduz beteak oso interesgarria izango litzatekeela adierazi diete ikasleei. Zergatik? eskolak liburu bat sortu nahi du eskolatik pasatako ikasle guztiekin, hurrengo urteetan eskolatik pasako*

*diren ikasleak liburu hau irakurtzeko aukera izango dute eta beraien izan zituzten momenturik gustukoena ezagutzeko aukera izateko.*“

Testuinguru bat sortzearen ideia arrazoia da, Biggs, J. (2005) bere artikuluan egindako ikerketa metodoan oinarritzen da. Bertan Biggs “carta a un amigo” baliabidea erabiltzen zuen, bere ikasleentatik informazioa eta datuak lortzeko. Bere lana eta konklusioak irakurri ondoren, ideia ona iruditu zait, egoera berezi bat testuinguratzea ikasleengan sartzeko.

Beraz, testuinguru hori sortu eta gero, ikasleak idazlanak egingo zituzten. Aurretik azalduko zitzaizkien ez zela ikastolako ekintza bat, baizik eta unibertsitateko ikerketa batentzako eta nahi duenak parte hartu zezaketela. Baita ere, beraien lana anonimoak izango direla eta behin lana bukatzean, lanaren emaitzak azaltzea konprometitzen naizela, bai ikasleei eta bai ikastolako arduradunei. Behar izan ezker, beraien etorkizuneko proiektuan informazio erabilgarria dela uste baldin badute erabiltzeko.

### 5.3. GIDATUTAKO IDAZLANAREN EDUKIAREN ANALISI PROZEDURA:

Behin idazlanak jaso eta gero, lortutako datuak analizatzen eta batzen hasi nintzen. Lehenik, Pierre Parlebasek zehaztutako barne logikaren ezaugarri batzuk ikertzea erabaki nuen. Abiapuntua idazlanetan adierazitako motrizitatea-egoera motorrak identifikatzea izango zen, eta horrekiko hurrengo aspektuak zehaztuko nituzke: espazioa, denbora eta materiala. Honekin batera ere, kanpo logikaren aspektu batzuk ikertzea beharrezkoa ikusi dut: sentimenduak eta jarduera motaren inguruko beste aspektu batzuk, hain zuzen

1) Harremanak: adierazitako harremanek jarduera motak zehaztuko ditu eta motrizitatearekin erlazionatutako jarduerak nolakoak diren aztertuko dut. Zehazki, aurkaritza, lankidetzak edo aurkaritza/lankidetzak den.

2) Instalazioak: Motrizitatea duten idazlanak zehaztu eta gero, hauek nun egiten diren ikertuko ditut, hau da, zalantzazko zonaldea den (mendi zonalde bat) edo zalantza gabeko (gimnasioa) zonalde bat den.

3) Materialak: Idazlanak interpretatzeko garaian, materiala agertzen den edo ez ikertu dut. Kasu batzuetan ikasleak berak azalduko du hitzen bitartez eta beste batzuetan, egoeraren bitartez zehaztu daiteke zein material den beharrezkoa.

4) Denbora: Azken atal honetan egoerak bukera duten edo ez aztertuko dut.

Kanpo logikan:

1) Sentimenduak: Aspektu honen inguruan ez dut gauza handirik ikertu, bakarrik ze motatako sentimenduak sorrarazten diete ikasleak azaldutako egoeretan

Hauek ikertu ezker, motrizitatean gertatzen diren egoera guztiak osotasunean aztertzeko aukera izango dut. Beste batzuk aukeratu izan ezker, aspektu garrantzitsu batzuk ikertu edo azaleratu gabe geratuko ziren. Beste arrazoia da, ikertzeko aukeratutako aspektuekin zenbait gogoeta sakon edukitzeko aukera izango dudalako eta gogoeta hauekin, ondorio interesgarri eta sendo batzuk lortu ahal izateko. Idazlanean agertzen diren datu bereziak ikertu ezker, motrizitatearen arrakastaren zergatiak azaleratzeko aukera sortzen da.

#### 5.4. PROZEDURAN SORTUTAKO ZAILTASUNAK

Orain arte azaldutako prozesuan zehar, zailtasun batzuk eduki ditut eta atal honetan, oztopo metodologiko horiek aipatuko ditut.

Sortutako lehenengo oztopa, lagina zehaztea izan zen. Hau da, hasiera batean informazioa galdetegi zehatz batetik lortzea pentsatu nuen. Baina prozedura

honekin hainbat aspektu (adibidez, nik zehaztutako ezaugarriaz gain ikasleak gehitu zezakeen ideiak) bidean geratzeko arriskua nabaritu nuen, informazio lortzeko metodo hori alde batera utzi nuen. Horren ondorioz, pentsatu nuen testuinguratuako idazlanak informazioa modu osoago batean jasotzeko aukera menago zidala.

Aurreko arazoarekin erlazionatuta, zenbat idazlan jasoko nituen duda sortu zitzaidan. Izan ere, idazlan kopuru handi bat analizatzea lan handia egitea behartzen du eta hauek modu zehatz batean analizatzeko denbora ez da oso luzea (gradu amaierako lanak eskaintzen duenak). Gainera, irakasle batzuk gomendatu zidaten lagin kopurua murriztea. Beraz, lagin kopurua murriztea erabaki nuen: lau zikloetatik gela bat aukeratu beharrean, lehenengo bi mailetatik, gela bana hartzea erabaki nuen.

Bukatzeko, kasu batzuetan oso zaila egin zitzaidan aspektu batzuk identifikatzea ikasleen zehaztasun faltarengatik, baina testuinguruarengatik eta testuan zehar zeuden hainbat pistarekin, lortu nuela hainbat gauza ondorioztatzea. Modu honetan lortu nuen oztopoak gainditzea.

## 5.5. ARLO ETIKOA:

Aurreko atal batean azaldu dudanez, Gradu Amaierako tutorearekin lagina zehaztu eta ikastolarekin harreman handia dudanez, ikastolarekin egun bat adostu eta idazlanak egiteko proposamena egitea joan nintzen.

Horregatik, egin nuen lehenengo gauza, ikastolako zuzendaritza taldearekin hitz egitea izan zen. Bertan, nik egin behar nuen lanaren nondik norakoa azaldu eta ikasleengandik zer behar nuen azaldu nuen. Bilera horretan argi utzi nahi nuen, ikasleen esparru pribatua errespetatuko nuela eta beraien datu pertsonalik ez zirela inon agertuko. Horretarako azaldu behar izan nuen, bai ikasleen idazlanetan eta bai hortik ateratako datuekin egingo nuen lanean, ez zirela ikasleen daturik agertuko.

Ikastola ziurtatzeko esandako guztia egia zela, behin lana bukatuta ale bat emango niela zin egin nuen. Marcus Banks (2010: 118): *Todos los investigadores sociales están de acuerdo en que, a menos que haya una fuerte justificación para actuar de otra manera, el investigador social tiene el deber de proteger la intimidad de los sujetos de la investigación.*




## 6. DATUEN ANALISIA:

Jarraian idazlanetan ikertutako aspektuen datuak sailkatuta agertuko dira, bai taula eta bai grafikoan bitartez. Ondoren, datu hauen analisia eta interpretazioa agertuko da.

### 6.1. IDAZLANETAN AGERTZEN DIREN EGOERA MOTORRAREN INGURUKO DATUAK ETA ANALISIA:

Lehenengo grafikoan ikusi daitekeen moduan, testuinguratutako idazlanetan identifikatutako motrizitatearen inguruko datuak agertzen dira. Bertan, 60 idazlanetatik %61,7 (37 ikasle) motrizitateko jarduera bat aukeratu du. Geratzen den %38,3 (23 ikasle) motrizitate gabeko jarduera bat aukeratu dute



*Motrizitatea bai edo motrizitatea ez.*

Motrizitatearen grafikoa izango da, guztietatik garrantzitsuena, nire ikerketa honen inguruan eraiki dudalako eta ikusi daitekeen moduan, hasiera esandako hipotesia modu esanguratsu batean betetzen delako. Bertan ikusi daiteke, nola

ikaslearen ehuneko handi bat motrizitatearekin erlazionatutako ekintza bat aukeratzen duten (nahi izan ezker, ikasle guztien aukeraketa 2.eranskinean ikusi daiteke) eta horietatik nabarmenena, jolas garaian ikasleak jokatzeko dituzten futbol partiduak. Hona hemen adibide bat

*Ikaslea 3: Nire momenturik gustokoena da, nere kuadrilarekin jolas garaian egiten ditugun futbol partidak dira.*


Ondorengo taulan ikusi daiteke bi mailen emaitzak baina gelaka banatuta. Lehenengo mailan motrizitatearekin erlazionatutako idazlanak 17 dira eta erlazionatuta ez daudenak berriz 13. Bigarren mailan, motrizitatearekin erlazionatuta 20 idazlan izan dira eta motrizitate gabekoak 10 idazlan izan dira.

1º MAILA		2º MAILA	
BAI	EZ	BAI	EZ
17	13	20	10

*Motrizitatea "bai edo ez", mailaka banatuta*

Taulan argi ikusten da aukeratutako bi mailetan motrizitatearen balioa handiagoa izan dela gabekoarekin konparatu ezker. Gainera bietan emaitzak oso antzekoak izan dira, nahiz eta bigarren mailako emaitzak nabarmenagoak diren bi aspektu hauen distantzia.


Ikerketan parte hartu duten 60 ikasleetatik 23 emakumeak ziren eta %43,5 (10 ikasle) motrizitatea azaldu dutenen artean eta %56,5 (13 ikaslea) motrizitatearekin erlazionatuta ez dagoen beste egoera bat errepresentatu dute beraien idazlanetan.



*Emakumeen idazlanetan lortutako emaitzak*

Emakumeen arteko emaitzetan argi ikusi daiteke, motrizitatearen arrakasta murriztu egin dela eta beste egoera batzuk indarra hartu dutela. Zehazki zientzia arloetako egoerak azaldu dituzte. Motrizitatearekin erlazionatutako ekintzetan, ez da ekintza bakar bat nabarmentzen besteen gainetik, baizik eta egoera desberdin asko azaldu dituzte. Adibidez: *yoga, pilates, orientazio ariketak...*


Gizonezkoen idazlanetan berriz, %70,3 (26 ikasle) motrizitate jarduera bat azaldu dute eta geratzen den %29,7 (11 ikasle) motrizitatearekin erlazionatuta ez dagoen eskolako beste egoera bat azaldu dute.



*Gizonezkoen idazlanetan lortutako emaitzak*

Gizonezkoen kasuan berriz, motrizitatearekin erlazionatutako ekintzak izan dira nabarmenenak, gainera arrakasta handi batekin. Azaldutako egoerak mota desberdinekoak izan dira baina gizartean jokatzen diren kirol jarduerak izan zehazki azalduenak: Futbola eta saskibaloia

Atal honetan agertzen den lehenengo grafikoko datuetan ikusi daiteke, %38,3ak (23 ikaslea) motrizitatearekin ez erlazionatutako beste egoera bat azaldu duten bere idazlanetan. Ateratako datuak ikertu ezkerro, informatika eta fisika/kimika % 26,1 (6 ikasle ikasgai bakoitzean) emaitzak lortu ditu. Ondoren, plastika eta hizkuntzak, % 17,4 (4 ikasle ikasgai bakoitzean). Eta azkenik, egoera desberdinak izan dira eta "besteak" (matematika, teknologia eta historia) talde bezala identifikatu ditut, %13 (3 ikasle) emaitzarekin.




*Motrizitate gabeko idazlanetan, azaldutako egoerak*

Motrizitatearekin erlazionatuta ez dauden datuak analizatu ezkerro, argi ikusi daiteke zientziarekin erlazionatutako egoerak direla gustukoenak ikasleentzako, emakumeen datuekin kanporatu ezkerro, kointzidentzia dagoela ikusi daiteke. Gainera, egoerarik nabarmenean fisika/kimika irakasgaia izan da eta jarraian informatika. Hala ere, matematika eta teknologia ere emaitza garrantzitsua lortu dituzte.

## 6.2. IDAZLANETAKO HARREMANEN INGURUKO DATUAK ETA ANALISIA:

. Kasu honetan, ikasleak azaldutako egoeren erlazioak aztertuko ditut. Motrizitatea duten 37 idazlanetatik, egoera psikomotorea %24,3koa da (9 ikasle) eta egoera sozimotoarea, %75,7ko izan da (28 ikasle).




*Harreman moten emaitzak.*

Grafiakoan agertzen diren emaitzak oso nabarmenak dira, egoera sozimotoarra bereziki (futbola eta saskibaloia), bere garrantzia izugarria delako. Izan ere gaur egungo gazteei beraien artean erlazionatzea asko gustatzen zaie eta beharrezkoa ikusten dute. Egoera psikomotorearen inguruan nabarmendu nahiko nuke, ikasleak azaldutako egoera “yoga” eta “pilates” izan direla. Hiru astez eskolak prestatutako ekintza bat izan zen.

*Ikaslea 18: Urtean zehar aste bereziak egiten ditugu kirol berdinak ezagutzeko eta izugarri disfrutatu nuen nire lagunekin “yoga” eta “pilates” egiten.*

Egoera sozimotoarean ateratako datuak ikertu ezkerro, ikasleak idatzitako 28 idazlanetatik, atal honen barruan dauden hiru azpi ataletan banatu eta ikertu egin ditut. Lankidetzeta/aurkaritza egoera, azaldutako egoera nabarmenena da % 53,6 (15

ikasle). Ondoren, aurkaritza egoera agertzen da, % 28,6 (8 ikasle). Azkenik, lankidetzako egoera agertzen dira, % 17,9 (5 idazlan)




*Soziomotorreko azpiatalen sailkapena*

Soziomotor egoera azaldu duten 28 ikasleen idazlanak analizatu ezker, aurreko grafikoan ikusten diren emaitzak ikusi ditzakegu. Non, lankidetzako/aurkaritza egoera den espresatuena. Izan ere, gaur egungo gizartetik jaso duten informazioa edo esperientziak ikusi arazi dit, aurkaritza/lankidetzako egoera bizitzako edozein momentutan ikusi eta bizitu daitekeen, ikasleentzat egoera hau naturala bezala barneratu dute eta praktikan jartzen saiatzen dira. Horregatik, kirol garrantzitsuenak dira egoera honen barruan idatzitakoak.

### 6.3. IDAZLANETAKO ESPAZIO MOTEN DATUAK ETA ANALISIA:


Espazioa zalantzazko eta zalantza gabeko bi azpi multzotan sailkatzen dira. Alde batetik zalantzazko zonaldea (inguruko espazioa aldatu egiten da) 8 ikasleek (%21,6) azaldu dute bere idazlanetan. Beste aldetik, zalantza gabeko zonaldeak (espazioa beti berdina da) 29 ikasleek (% 78,4) errepresentatu zuten beraien hitzekin. Kasu honetan berriz, eskolako kirol nagusienetarako kirol zonaldeak dira.



*Zalantza eta zalantza gabeko multzoetan sailkatuta*

Zalantza gabeko datuen inguruan, aurreko ataletan esan bezala. Kirol garrantzitsuak direnez praktikatuenak, normala da zalantza gabeko atalean zelai hauek azalduta egotea. Zalantzazko datuetan berriz, argitu beharra dago, Orereta ikastola mendi zonalde batean kokatuta dagoela eta bertan zalantzazko ariketak egiteko oso zonalde egokiak daude. Zehazki, orientazio jolas batzuk izan ziren.

Ondorengo datuetan, zalantza gabeko 29 idazlanetako datuak desglosatuko ditut. Egoerarik nabarmenena futbola izan denez, espaziorik arrakastatsuen futbolaria zelaia izan da, 10 ikasle (% 34,5). Hurrengoa gimnasioa da ikasleek azaldutakoa 6 idazlanekin (% 20,7). Jarraian, "besteak" kontzeptua bezala katalogatu dut eta bertan egoera desberdinak sartzen dira, 5 pertsonen azaldu dute egoera hau (% 17,2). Bukatzeko, frontoia eta boleiboleko zelaia, bakoitzak 4 pertsonen (% 13,8) azaldu dute.




*Azaldutako zonalde gustukoak*

Grafikoko emaitzetan, orain arte azaldutako eta errepikatutako emaitzak agerian geratzen dira, zehazki futbolaren ingurukoak. Baina interesgarria iruditzen zait nabarmentzea boleibolaren emaitza. Izan ere, Gipuzkoan ez da oso kirol famatua eta zehazki Errenterian ez dago klubik kirol hau praktikatzeko eta eskolan horrelako kirolak praktikatzeko aukera izatea garrantzitsua iruditzen zait.

#### 6.4. IDAZLANETAKO JARDUERA MOTEN DATUAK ETA ANALISIA:

Nabarmendu beharreko beste aspektu bat, egoera soziomotorraren barruan dauden egoera desberdinen analisia da eta lau ataletan banatu dut: Kirolak, jolasak, jolas sinbolikoak eta bestelakoak (ikasleak sortutako jolas batzuk).

Azaldutako egoerak honako hauek izan dira: 18 testuinguratutako idazlanekin (%48,6) kirolak agertzen diren. Bigarren maila batean jolasak agertzen dira, idatziz espresatutako 13 idazlanekin (% 35,1). Ondoren, “bestelakoak” terminoz izendatutako egoerak sartzen dira, 5 pertsonak azaldu dute (% 13,5). Azkenik, jolas sinbolikoak agertzen dira. Egoera honek hitzezko errepresentazio bakar batekin agertzen da % 2,7.



*Ikasleak aukeratutako motrizitate egoerak*




“Bestelakoak” bezala termino bat izendatu dut ekintza desberdin batzuk izendatzeko eta horien artean agertzen dira, “malabareak”, “Gorputz Adierazpena” eta “orientazio jolasak” besteak beste.

Jolas sinbolikoaren inguruan, garrantzitsua iruditu zait azaltzea, zehaztasun handiarekin zein motatako egoera den. Ikasleak azaldu duen moduan, urtean zehar badago epe bat, non irakasleak “Gorputz Adierazpena” edukia lantzen dutela ariketa batzuen bitartez, Ariketa hauek mota askotakoak direla azaltzen du baina berari gehien gustatzen zaizkion ariketak, antzezlan sinbolikoekin erlazionatuak dira.

Ikaslea 11: *Urtean zehar gorputz adierazpena egiten dugu eta egiten ditugun ariketen artean, antzerkien atala da niretzako gustukoena.*

#### 6.5. IDAZLANETAKO SENTIMENDUEI BURUZKO AIPAMENAK:

Grafikoan ikusi daitekeen moduan, motrizitatea azaldu duten 37 idazlanetatik, 37 idazlanetan “sentimendu onak” agertzen dira. Beste modu batean esanda, motrizitatearekin erlazionatutako egoera guztiak %100, “poztasun” edo “gozamena” sentimenduekin erlazionatuta daudelako.



*Idazlanetan adierazitako sentimenduak*


Lehen hezkuntzako GRAL-aren jarraipenarekin jarraitzea pentsatu nuenean, sentimenduen atalari garrantzia ematea interesgarria iruditu zitzaidan, aurreko

lanean egin nuen bezala. Gainera, kasu honetan, ikasleen sentimenduak modu argiago batean antzeman egingo nituen. Izan ere, ikasleak geroz eta helduagoak izan, arazo gutxiago dituzte beraien sentimenduen azaleratzeko.

Nahiz eta hipotesia lantzeko testuinguruak emaitza hau lortzeko portzentajea oso handia zen (zein da ikastolako momenturik gustukoena), ez nuen espero hainbesteko arrakasta izango zuenik. Izan ere, Irakasle eskolan egindako lanean, “sentimendu txarrak” ere agertu ziren, marrazkiak ikertzeko garaian. Hau da, ikasle batzuk marrazkiak irudikatzeko garaian, bere marrazkietako pertsonai batzuen aurpegiak ez ziren alaitasun sentimenduarekin erlazionatuta. Eta kasu honetan ere, egoera berdina sortzeko aukera zegoen, ikasleak askatasun handia izan zutelako.

#### 6.6. IDAZLANETAKO MATERIALEN INGURUKO AIPAMENAK:

Motrizitatearekin erlazionatutako 37 idazlanetatik, materiala hitzen bitartez agertzen diren idazlan kopurua 29-koa da (% 78,4) eta materialik gabe agertzen diren idazlanak, 8 dira (% 21,6).




*Idazlanetan agertzen diren material portzentaia*

Garrantzitsua da azaltzea zer nolako material mota erabili izan den ikerketa eremuan eta denboran. Horretarako materialaren erabilpena bi modutan identifikatu dut. Alde batetik, ikasleak berak idazlanean idatzitako materialak zenbatuta.

Bestetik, ikasleak azaldutako egoera motorrak jokatzeko, ezinbestekok diren materialak zenbatuta. Adibidez, ikasle batek boleibol partidak jokatzeko gustatzen zitzaioala azaldu zuen eta horretarako beharrezkoa da baloi baten erabilpena

Ikertutako 29 egoeretatik, baloia 11 (% 57,9) egoera motorretan agertzen da. “Malabareak” eta hauekin erlazionatutako antzeko materialak, 3 idazlan (% 15,8). “Jarraian koltxonetak” eta “iparrorratza” agertzen dira, bakoitza 2 idazlan (%10,5). Bukatzeko, gorputz adierazpen saioak egiteko “atretzoa” agertzen da, idazlan bakar batekin (% 5,3).



*Identifikatutako material moten portzentaia*

Materiala azaldu duten 29 idazlanetatik, interesgarria iruditzen zait azaltzea, bakoitza zein jarduera fisikoan erabiltzen diren jakitea. Baina horren aurretik, koltxoneta bezala identifikatutako terminoaren barruan, gimnasioan jarduera batzuk aurrera eramateko beharrezkoa diren materialak sailkatu ditut.


Material guztietatik, baloi terminoa bezala identifikatutakoa izan da azalduena. Honen barruan, baloi desberdinak agertzen dira, baina gehiengoak oso nabarmenak dira kirol garrantzitsuenak gizartean duten boterearengatik. Horren ondorioz, futboleko baloia da idazlanetan gehien agertzen den baloi mota. Ondoren, saskibaloia eta boleiboleko baloia agertzen dira. Eta baloiarekin bukatzeko,

frontoian erabiltzen diren pilotak agertzen dira. Egia da ez direla baloiak, baina termino bakar bat bezala identifikatu ditut.

Atal honi bukaera emateko, materialen emaitzak erlazio estua dute egoera motor espezifikoaren sailkapenarekin. Materiala egoera desberdinetan agertu daiteke, idazlanetan ikusi dudan moduan, baina bere erabilgarritasuna desberdina izango da. Adibidez, kirol bat praktikatzean, baloiak funtzio espezifiko bat dauka. Berriz, jolas sinbolikoetara jolastean, ikaslearen arabera, baloiak erabilera anitzak hartu ditzake. Beraz, kontu handiarekin ibili behar da material batzuk identifikatzeko garaian.

#### 6.7. IDAZLANETAKO DENBORA MOTEN DATUAK ETA ANALISIA:

Denbora ikertzeko garaian, aspektu hau denbora lineala edo ziklikoa banatzen da. Kasu honetan, azaldu beharra dago, 37 idazlanetatik bat kentzea beharrezkoa izan dala. Izan ere, jolas sinbolikoko egoera, ez da marko teorikoan denbora mota bat bezala zehazten. Beraz, gertatzen diren 36 idazlanetatik, denbora linealak 26 idazlan lortu ditu (%72,2) eta denbora ziklikoak berriz, 10 idazlan (%27,) lortuz (harrapaketa jolasak dira espresatuenak).



*Denbora lineala eta ziklikoaren datuak*

Grafikoan argi ikus daitekeen moduan, denbora lineala da arrakasta gehien duen denbora mota ikasleen artean. Haurrak asko disfrutatzen dute garaipen bat eskuratzen dutenean eta egoera horretan sortzen diren sentimenduak konparaezinak dira. Gainera gaur egungo gizartean pertsonen arteko lehiaketak oso naturalak dira eta bizitzako edozein aspektuak ikusi ditzakegu, eta bizipen horiek, edozein egoera motorretara helarazten dute gaur egungo ikasleak. Zehazki, azaldutako kirol gehienak, denbora linealean, gizartean dauden boteretsuenak izan dira (Futbola).

## 7. ONDORIOAK:

Ikerketan lortutako emaitzak oso garrantzitsuak eta esanguratsuak izan dira lanaren hasieran planteatu dudan helburua baieztatzeko, hau da, motrizitateak DBH-ren umeengan duen arrakasta azpimarratzeko: ikasleek motrizitatearen premia dute, eta ez bakarrik, “soberan” daukaten energia kanporatzeko, inportantena ikasleek motrizitatea egiteko aukera dutenean, prestutasuna edo partaidetasuna, gogoak eta sozializatzeko aukera handitzea dakar.

Genero aspektuari begira esan behar da erakarpen hau ez da bi sexuetan neurri berean gertatzen, orokorrean bai mutilen bai nesken aldetik motrizitatearen praktika ohikoagoa da, baina oraindik ere mutilen artean motrizitatean izugarritzko arrakasta dauka.

Gaur egun, gizartean indar handiarekin inposatuta dauden kirolak eta praktikak, futbola, saskibaloia eta abar ..., argi eta garbi isladatzen dira idazlan hauetan, ikusi dudan moduan. Baina, ikerketan zehar datu esanguratsu batzuk agertu dira kontrako zentzuan, ere, nabarmentzekoa dela uste dut, Boleibola, yoga, dramatizazioa..., gure gizartean zabalduenak ez diren jarduera fisikoak aipatzen dira bere neurrian.

Emaitzak ikusita sozializazioari buruz, ikerketa honetan, gertuko harremanak mantentzeko jarduera horiek aukeratzen dituzte. Ikasleak sozimotoire jarduerak aukeratzen dituzte beraien lagunekin aurrez aurreko erlazioak edukitzen dutenean disfrutatu egiten dutelako eta bata bestarengandik ikasi egiten dutelako. Zehazki, egoerarik aukeratuena lankidetzeta aurkaritza da, gaur egungo gizartean indartsuago diren kirol modalitatearen egiturazkoak.

Sentimenduak aspektuan emaitzetan ikusi daiteke, nola sentimendu onak izugarritzko arrakasta izan duen. Egia da, idazlanak egiteko garaian planteatutako egoera horrelako emaitza bat ateratzea bideratuta zegoela, baina garrantzitsuena

da, poztasun momentu horiek motrizitatearekin erlazionatuta daudela kantitate handi batean eta ez beste arlo batean.

Bukatzeko ateratako beste ondorio garrantzitsu bat, gazteak irabazteko behar duten beharra da eta honekin batera, “denbora” atalaren emaitzekin erlazio estua du. Izan ere, bukaera duten jarduerak dira, garaipen bat lortzeko egoerak. Honek adierazten du, lehen hezkuntzan zehar eduki dituzten gorputz hezkuntzako irakasleak, garrantzi handia eman diote garaile-galtzaile edukiei edo ariketei. Horregatik, jarduera bat aukeratzeko garaian barneratutako baloreak azalerazten dituzte.

## **8. GERORA BEGIRA PENTSATUTAKO LAN PROPOSAMENAK:**

Nire lanaren garapena aztertu ondoren, arlo honen inguruko beste iker lan batzuk bururatu zaizkit, besteak beste:

Nik egindako lan honen helburu berdinekin beste testuinguruko eskola batean egitea ere interesgarria ikusten dut, zein motatako emaitzak eta ondorioak agertzen diren ikusteko eta nireak direnekin alderatzeko.

Beste proposamen bat izan zitekeen erabilitako erreminta aldatzea. Irakasle eskolan, lanean azaldu dudan moduan Adierazpen Plastikoa (marrazkiak) erabili nituen, kasu honetan bigarren hezkuntzan Idatzizko Adierazpena (idazlanak) erreminta bat aukeratu dut. Proposamen berri bat izango litzateke, beste adierazpen mota erabiltzea, Gorputz Adierazpena, hain zuzen. Zehazki, gustukoa dituzten egoerak antzezten, dramatizazio txiki batzuk egiten eta haien grabaketak lagin moduan erabiliz.

Fidagarritasun maila handitzeko nahian, bi kurtsoko gela bat aukeratu beharrean, lagina handitu eta, DBHko eskola bateko ikasle guztien iritzia jasoz.

Lan honetan egoera motorren azterketari erreparatu zaiola, barne logikaren ikuspuntutik bakarrik, baina, kanpo logikaren alderdia ikertzeak ere, hipotesiarekin erlazionatutako hainbat datu eta ezaugarri eskuratzen lagunduko lukeela. Horrela, ikerketaren inguruan beste ikuspuntu bat lortuko litzateke



## **9. BIBLIOGRAFIA:**

- A. Etraus y J. Corbin (1990: 17) :  
<https://diversidadlocal.files.wordpress.com/2012/09/bases-investigacion-cualitativa.pdf>
- Banks, M. (2010) *Los datos visuales en Investigacion Cualitativa*. Madrid: Editorial Morata
- Biggs, J. (2005). *Calidad del aprendizaje universitario*. Madrid: Narcea.
- Bisquerra, R. (1989). *Métodos de investigación educativa*. Bartzelona: Ceac.
- Carmen Reyes Ruiz, Gilda Lopez Rodriguez, Virtudes Chavez Lopez eta Juan Ruben Grimaldo Monsivais-en (1981) <http://200.23.113.51/pdf/866.pdf>
- Colón A. ; La importancia de la redacción el mundo académico  
[http://kalathos.metro.inter.edu/kalathos\\_mag/publications/archivo1\\_vol2\\_no1.pdf](http://kalathos.metro.inter.edu/kalathos_mag/publications/archivo1_vol2_no1.pdf)
- Etxebeste, J eta Urdangarin, C (2005). *Euskal jokoa eta jolasa. Transmitiendo una herencia vasca a partir del juego*. Eusko jaurlaritz.
- Parlebas, P. (2001), *Juegos, deportes y sociedad. Lexico de praxiologia motriz*. Bartzelona: Paidotribo.
- Pérez Serrano, G. (2001). *Investigación Cualitativa Retos e Interrogantes*. La Muralla S.A. editoriala.
- Pita Fernández, S. eta Pértegas Díaz, S. 2002  
[http://www.ecominga.uqam.ca/PDF/BIBLIOGRAPHIE/GUIDE\\_LECTURE\\_2/4/2.Pita\\_Fernandez\\_y\\_Pertegas\\_Diaz.pdf](http://www.ecominga.uqam.ca/PDF/BIBLIOGRAPHIE/GUIDE_LECTURE_2/4/2.Pita_Fernandez_y_Pertegas_Diaz.pdf)
- Rojas, G. (2002). La investigación etnográfica, un reto para comprender el acontecer del aula. *Revista electronica Educare*, 3, 47-53.
- Rodríguez, G., Gil, J., & García, E. (1996). Tradición y enfoques en la investigación cualitativa. *Barcelona, ediciones Aljibe*.
- Sandin Esteban, M<sup>a</sup> P. (2003). *La enseñanza de la investigación cualitativa*. *Revista de Enseñanza Universitaria*. Barcelona.  
<http://institucional.us.es/revistas/universitaria/21/art%202.pdf>

## **10 ERANSKINAK:**

### **1. ERANSKINA: PLANILLA EREDUA:**

#### **TESTUINGUAREN AZALPENA:**

Jarduera honen bitartez, EHU-ko Gradu Amaierako Lan bat egiten lagunduko duzue, zehazki, Jarduera fisiko eta Kirol zientzien fakultatean. Lana jarduera fisikoaren inguruko ikerketa bat da eta horretarako zuen laguntza beharrezkoa da datuak bereganatzeko.

#### **JARDUERAREN AZALPENA:**

Bost zortzi lerroko idazlan baten bitartez, eskolan duzuen momenturik gustukoena azaldu eta deskribatu egin behar duzue. Adibidez, azaldu dezakezue espazioa (lekua), jarduera mota, partaideak, sentimenduak (zer sorrarazten dizuen jarduera horrek), materiala... eta zuei bururatzen zaizkizuen ezaugarri edo detaile gehiago. Geroz eta ezaugarri gehiago lagungarriagoa izango da ulertzeko. Ez duzue izena jarri beharrik.

**GENEROA:**

**KURTSOA:**

**ADINA:**

2. **ERANSKINA:** IKASLE BAKOITZAK ZEHAZTUTAKO JARDUERAK

IKASLE KOPURUA	IDENTIFIKATUTAKO JARDUERAK
1 IKASLEA	ORIENTAZIO JOLASAK
2 IKASLEA	FRONTENISA
3 IKASLEA	FUTBOLA
4 IKASLEA	FUTBOLA
5 IKASLEA	FUTBOLA
6 IKASLEA	FUTBOLA
7 IKASLEA	BRILET
8 IKASLEA	BALOI ESERIA
9 IKASLEA	FUTBOLA
10 IKASLEA	HARRAPAKETA JOLASAK
11 IKASLEA	ANTZERKIA
12 IKASLEA	BEISBOL PIE
13 IKASLEA	HARRAPAKETA JOLASAK
14 IKASLEA	BOLEIBOL
15 IKASLEA	ESKUPILOTA
16 IKASLEA	HARRAPAKETA JOLASA
17 IKASLEA	ABILEZI ZIRKUITOAK
18 IKASLEA	YOGA ETA PILATES
19 IKASLEA	FUTBOLA
20 IKASLEA	HARRAPAKETA JOLASA
21 IKASLEA	BOLEIBOLA
22 IKASLEA	ARMIARMA
23 IKASLEA	FUTBOLA
24 IKASLEA	BEISBOL PIE

25 IKASLEA	SASKIBALOIA
26 IKASLEA	ESKUPILOTA
27 IKASLEA	ESKUPILOTA
28 IKASLEA	HARRAPAKETA JOLASA
29 IKASLEA	FUTBOLA
30 IKASLEA	BRILET
31 IKASLEA	FUTBOLA
32 IKASLEA	BALOI ESERIA
33 IKASLEA	FUTBOLA
34 IKASLEA	SASKIBALOIA
35 IKASLEA	YOGA ETA PILATES
36 IKASLEA	BOLEIBOLA
37 IKASLEA	BOLEIBOLA

### 3. ERANSKINA: IDAZLANEN ADIBIDEAK

Lehenengo adibidea:

#### TESTUINGUAREN AZALPENA:

Jarduera honen bitartez, EHU-ko Gradu Amaierako Lan bat egiten lagunduko duzue, zehazki, Jarduera fisiko eta Kirol zientzien fakultatean. Lana jarduera fisikoaren inguruko ikerketa bat da eta horretarako zuen laguntza beharrezkoa da datuak bereganatzeko.

#### JARDUERAREN AZALPENA:

Bost zortzi lerroko idazlan baten bitartez, eskolan duzuen momenturik gustukoena azaldu eta deskribatu egin behar duzue. Adibidez, azaldu dezakezue espazioa (lekua), jarduera mota, partaideak, sentimenduak (zer sorrarazten dizuen jarduera horrek), materiala... eta zuei bururatzen zaizkizuen ezaugarri edo detaile gehiago. Geroz eta ezaugarri gehiago lagungarriagoa izango da ulertzeko. Ez duzue izena jarri beharrik.

GENEROA: *NESKA*

KURTSOA: *BATX 4*

ADINA: *17*

*Eskolako momenturik gustukoena HF klaseak dira. Polikiroldegian egiten dugu eta hainbat ~~g~~ ariketa egiten ari garen gara. Gainera, klasekideekin jokoak egitea gustoko dut. Bestalde, patioa ere gustoko dut, lagunekin mitketan esportazio momentuak delako.*

Bigarren adibidea:

TESTUINGUAREN AZALPENA:

Jarduera honen bitartez, EHU-ko Gradu Amaierako Lan bat egiten lagunduko duzue, zehazki, Jarduera fisiko eta Kirol zientzien fakultatean. Lana jarduera fisikoaren inguruko ikerketa bat da eta horretarako zuen laguntza beharrezkoa da datuak bereganatzeko.

JARDUERAREN AZALPENA:

Bost zortzi lerroko idazlan baten bitartez, eskolan duzuen momenturik gustukoena azaldu eta deskribatu egin behar duzue. Adibidez, azaldu dezakezue espazioa (lekua), jarduera mota, partaideak, sentimenduak (zer sorrarazten dizuen jarduera horrek), materiala... eta zuei bururatzen zaizkizuen ezaugarri edo detaile gehiago. Geroz eta ezaugarri gehiago lagungarriagoa izango da ulertzeko. Ez duzue izena jarri beharrik.

GENEROA: Mutila

KURTSOA: 1. Batxilergoa ADINA: 17

Nire momenturik gustukoena, heziketa fisikoan denbora librean ematen dugutenean da. Nire klasekideekin jolasteak pozik egiten nau, eta azterketa osko egin ondoren eta eserita egon ondoren, oso gustora jolasten dut. Irakasleari berdin zaio zer egiten dugun, eta futbolekin jolasten dut gehienetan. Leku dextente daukagu baloian ostikoak emateko.

Hirugarren adibidea:

TESTUINGUAREN AZALPENA:

Jarduera honen bitartez, EHU-ko Gradu Amaierako Lan bat egiten lagunduko duzue, zehazki, Jarduera fisiko eta Kirol zientzien fakultatean. Lana jarduera fisikoaren inguruko ikerketa bat da eta horretarako zuen laguntza beharrezkoa da datuak bereganatzeko.

JARDUERAREN AZALPENA:

Bost zortzi lerroko idazlan baten bitartez, eskolan duzuen momenturik gustukoena azaldu eta deskribatu egin behar duzue. Adibidez, azaldu dezakezue espazioa (lekua), jarduera mota, partaideak, sentimenduak (zer sorrarazten dizuen jarduera horrek), materiala... eta zuei bururatzen zaizkizuen ezaugarri edo detaile gehiago. Geroz eta ezaugarri gehiago lagungarriagoa izango da ulertzeko. Ez duzue izena jarri beharrik.

GENEROA: *NESKA*

KURTSOA: *1 BATX*

ADINA: *16*

*Nire eguneroko eskolan dudari momenturik gustukoena kimika da, ikasgai berrak gustuko. Naluz eta batzuetan azperrigamia izan, kease gutiak betala, nomarean entrentigamia da.*



Laugarren adibidea:

TESTUINGUAREN AZALPENA:

Jarduera honen bitartez, EHU-ko Gradu Amaierako Lan bat egiten lagunduko duzue, zehazki, Jarduera fisiko eta Kirol zientzien fakultatean. Lana jarduera fisikoaren inguruko ikerketa bat da eta horretarako zuen laguntza beharrezkoa da datuak bereganatzeko.

JARDUERAREN AZALPENA:

Bost zortzi lerroko idazlan baten bitartez, eskolan duzuen momenturik gustukoena azaldu eta deskribatu egin behar duzue. Adibidez, azaldu dezakezue espazioa (lekua), jarduera mota, partaideak, sentimenduak (zer sorrarazten dizuen jarduera horrek), materiala... eta zuei bururatzen zaizkizuen ezaugarri edo detaile gehiago. Geroz eta ezaugarri gehiago lagungarriagoa izango da ulertzeko. Ez duzue izena jarri beharrik.

GENEROA: *Mutila*

KURTSOA: *1 Batxilergoa* ADINA: *16*

*Gimnasia klaseak. Polikiroldegian edo barneko gimnasioan  
heziketa fisikoa egiten dugulako. Joksak, edo badminton edo denbora  
librea egiten dugulako eta estresa kanporatzen dugulako eta  
et dugulako estorka handiak egiten ilasteko*



Bostgarren adibidea:

TESTUINGUAREN AZALPENA:

Jarduera honen bitartez, EHU-ko Gradu Amaierako Lan bat egiten lagunduko duzue, zehazki, Jarduera fisiko eta Kirol zientzien fakultatean. Lana jarduera fisikoaren inguruko ikerketa bat da eta horretarako zuen laguntza beharrezkoa da datuak bereganatzeko.

JARDUERAREN AZALPENA:

Bost zortzi lerroko idazlan baten bitartez, eskolan duzuen momenturik gustukoena azaldu eta deskribatu egin behar duzue. Adibidez, azaldu dezakezue espazioa (lekua), jarduera mota, partaideak, sentimenduak (zer sorrarazten dizuen jarduera horrek), materiala... eta zuei bururatzen zaizkizuen ezaugarri edo detaile gehiago. Geroz eta ezaugarri gehiago lagungarriagoa izango da ulertzeko. Ez duzue izena jarri beharrik.

GENEROA: Mujida

KURTSOA: 1E Batx

ADINA: 16

Eskolan daukan momenturik gustukoena da saskibaloiaren entrenamenduetan, zeren eta kirolak generalki oso ondo dauke eskola honetan. Goizean baita gustatzen zaizkiz egiten ditugun reflexioak, oso eskola generosa ere bai da.